

Garbi jokatzek badu etorkizunik



ELA
EUSKAL SINDIKATUA



MANU
ROBLES-ARANGIZ
INSTITUTUA

Hiri-hondakinen kudeaketak eragiten dituen arazoak ez dira berriak ELArentzat.

Duela hamarkada bat hasi ginen erraustea salatzen, eta Gipuzkoan sistema honen aurka sortu den gizarte-mugimenduan ere parte hartu izan dugu, errausteko planta edonon kokatzekoa zela ere. 2010ean kanpaina bat egin genuen atez-ateko biltze selektiboaren alde, “zero waste” edota “zero hondakin” filosofiaren baitan. Hainbat agiri idatzi eta sarri zabaldu dugu honekiko gure iritzia.

Azken hileotan Gipuzkoan norgehiagoka politikoa hasi da hondakinen kudeaketaren inguruan. Harrituta ikusi dugu polemika honetan erabat bazterrean geratu dela arazoari irtenbidea emateko borondatea. Txosten honen asmoa, hain zuzen, arazoa zehaztea da, eta irtenbiderik egokienari buruzko gogoeta egitea.

Lege europarretako betebeharrak

Hondakinak kudeatzeko lege eta plan guztiek oinarritzat Hondakinen Zuzentarau europarra (2008/98/CE) hartu behar dute, eta honek dioenez hondakinen kudeaketan honako hierarkia hartu behar da aintzat:

1. hondakin kopurua murriztu
2. berrerabili
3. birziklatu
4. balorizatu (hondakinak erre, energia sortzeko)
5. erraustu edota zabortegira eraman

Honekiko zenbait iruzkin:

- Lehentasuna eman behar zaio hondakinak gutxitzeko eta berrerabiltzeko politikari. Lehentasun hau sarri ahaztu egiten da.

- Birziklatze-politikak funtsezkoak dira. Aztertu beharrekoa da hondakinak bildu eta tratatzeko zein sistemak errazten duen birziklatzea; begibistakoa da zenbat eta sistema selektiboagoa izan, birziklatzeko aukera handiagoa emango duela.

- Zuzentarauak derrigortu egiten du zatiki organikoa bereizita biltzera eta konpostatzera. Gainera, galarazita dago zabortegira birzikla daitekeen edozer eramatea.

- Zuzentarau honek inondik ere ez dio lehentasuna ematen errausteari, zabortegiaren aldean. Errausteak ingurumenean eta pertsonen osasunean eragiten dituen ondorio larriak ikusirik, ELA zabortegi inerteen (garbien) alde dago, azken urrats gisa, eta erraustearen aurkakoa da. Erraustearen aldean, atez-ateko sistemaren helburua ahal den gehiena birziklatzea da, zabortegira eraman aurretik.

Gipuzkoako egoera

Produkzio eta kontsumo ereduaren ondorioz, kontsumitzen dugun gauza asko erabili eta botatzekoa da, eta berehala hondakin bihurtzen da. Zaborrarekin gaur daukagun arazoa horren ondorioa da. Biztanleko hondakin kantitate izugarria sortzen dugu, eguneko 1,3 kilo. Gipuzkoan 2011n 350.000 tona hondakin sortu zen. Honekin batera, gipuzkoarrok beste arazo bat daukagu: zabor gehiegi sortzeaz gainera, ez dago bera kudeatzeko azpiegitura nahikorik; horregatik beste norabait eraman behar izaten dugu, eta ez da beti modu iraunkorrean kudeatzen. Baina arazo hau ez da hutsetik sortu; azken hamarkadetako hondakinen kudeaketak eraman gaitu egoera honetara.

Gipuzkoan hondakinak tratatzeko aukerak agortzen ari dira, eta bi bide artean hautatu beharra dago: erraustea edo zero zaborraren filosofia. Aukera hauetako bakarra da iraunkorra, zero zaborraren helburura atez-ateko sistemaren bitartez iristea.

Gipuzkoako Hiri-Hondakinen Kudeaketako Plan Integrala (PIGRUG)

Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketako Plan Integrala (PIGRUG) dugu Gipuzkoan hondakinak kudeatzeko tresna. Plan hau 2002-2016 epealdirako egin zen, eta dagoeneko zaharkituta dago.

2000. urtean hiri-hondakinen %22 birziklatu zen eta %3 konpostatu; %75, berriz, zabortegira eraman zen. Plan honek hainbat alternatiba aztertu zituen, baina guztietan errausteko planta eraiki beharra aipatzen zen. Planaren helburua errausteko planta eraikitzea zen eta honako portzentajeetara iristea: %34 birziklatzea, %4 konpostatzea eta %62 erretzea. Planak errausketari buruz egiten dituen baieztapenak esanguratsuak dira. Esaterako, errauts toxikoentzako zabortegi bat eskatzen duela, edota bertan erreko diren hondakinek bero-energia txikia dutela, hots, ez dutela balio energia sortzeko.

Gainera, plana ez dator bat Gipuzkoak gaur dituen ahalbideekin. Atez-ate bildutako hondakinen birziklapen maila %80ora iritsi da, eta 2013an, 34 udalek iragarritakoa betetzen bada, sistema hau biztanleen erdiak izango du. Plana zenbateraino zaharkituta geratu den argi adierazten du Lapatzeko konpostatzeko plantaren kolapsoak. PIGRUGek planta bakarra behar zuen hondakinen %4 konpostatzeko. Orain, materia organikoko birziklapen tasak handiagoak direnez, instalazio gehiago behar dira. Plangintza hori eguneratu beharra dago. Dagoenetan aplikatuz

gero, atzerapauso handi bat litzateke, eta kalte egingo luke.

Atez-ateko sistema, hondakinekiko politikaren beste atal bat

la guztiok ezagutzen dugu atez-ateko sistemak zein helburu dituen eta nola gauzatzen den, baina gauza batzuk nabarmendu beharrekoak dira:

1. Munduan nonahi erabiltzen dira atez-ateko sistemaren antzekoak, eta hain zuzen horiek lortzen dituzte birziklatze-tasarik handienak.
2. Gipuzkoan orain arte ez zegoen hondakinak tratatzeko planta nahikorik, eta zabortegietara gehiegi eramaten zen. Asmo nagusia ez da Gipuzkoa guztian atez-ateko sistema ezartzea, zero zaborraren helburura iristea baizik, hots, guztia berrerabili edo birziklatzea eta gauden egoera honetatik irtetea.
3. Atez-ateko sistemak hondakinak modu selektiboan biltzen ditu, gero birziklapen maila handiagoa eta errazagoa izan dadin. Honek oso emaitza onak ditu.
4. Sistema hau ez da hautazkoa, bosgarren edukiontzia bezala; derrigorrezkoa da. Izan ere, hala ez balitz, hondakin guztiak ez lirateke modu selektiboan bilduko. Horrek egiten du sistema hau hain eragingarria izatea.
5. Bilketa selektiboaren portzentajea asko hazi da. Lau edukiontziekin ez da %30etik gora biltzen; bostekin, berriz, ez da %35era iristen, borondatezkoa delako, eta denek ez dutelako birziklatzeko lana hartzen. Atez-ateko sistemarekin bilketa selektiboa %80etik gorakoa da. Antzuolan eta Usurbilen %90era iritsi dira.

6. Orain arte zati organikoa ez zen modu selektiboan biltzen (hondakinen ia %50 izanik), eta zabortegetan geratzen zen; horrela zabortegeiak gainezka zeuden, kutsatzaileak eta zikinak ziren. Materia organikoa modu selektiboan bilduz konpost bihur daiteke eta ingurumenera era egokian itzuli.

7. Materia organikoa biltzen zuten zabortegei zikinak desagertu egingo dira, birziklatzen ez den zatia garbia delako. Betiere hobea izango da zabortegei garbiago bat, eta ez ingurumenari eta jendearen osasunari kalte larria eragiten dien errausketa.

8. Errausteko plantak ez du ezer erre behar izango, eta jarduerarik ez duen edozein negozio bezala, ez da errentagarria izango. Ezin da ahaztu errausketa negozio bat dela, negozio toxiko eta kaltegarri bat, ezinbesteko azpiegitura gisa saldu nahi diguten arren.

9. Udal bakoitzean parte hartzeko prozesuei ekin beharko litzaieke jendeak sistema ezagutzeko aukera izan dezan eta bere beharrianetara molda dadin (ordutegiak, egutegia, emergentzia guneak...).

10. Atez-ateko sistemaren beste alde positibo bat enplegua sortzea da. Aurreikuspenen arabera, atez-atekoa Gipuzkoa osora hedatuz gero 477 langile gehiago beharko lirateke, eta hau ona da. Gainera, ELAk exijitzen du egungo langileen enplegua eta eskubide eta lan-baldintzak errespetatu daitezela, subrogazioa medio, baita kontratatzen diren pertsonen baldintzak ere.

Gezurra nagusi...

Atez-ateko sistemaren aurkako kanpaina botere politiko, ekonomiko eta mediatikoaren gauza da. Hauek errauste-planta eraikitzea lehenesten dute negozio handi bat delako, eta ez die hainbeste axola osasunak eta ingurumenak. Honelako esaldiak botatzen dituzte:

1. *“Gipuzkoan kolapsora goaz; errausketarekin buruaski ginatete. Hori da aukera bakarra”*. Gipuzkoa ez doa kolapsora hondakinak errausten ez badira. Errausketak ingurumenari eta osasunari kalte handiak eragiten dizkie, eta horregatik beste sistema batzuk egokiagoak dira. Errausteak buruaski izatea zekarren, baina kontaminazioa oso handia zen eta osasunarentzako egundoko arriskua zegoen. Erraustea ez da aukera bakarra. Araban ez da errausten. Eta, esaterako, Nafarroan PPK eta PSOEk errausketa baztertzea erabaki dute, baina inork ez du kolapsorik aipatzen.

2. *“Zikina eta deserosoa da”*. Garbitasuna herritarren borondatearen baitan dago, beste bilketa sistemekin bezalaxe. Zabor-poltsak edukiontzietan 24 orduz uztea ez da garbia (erosoa izanagatik), ezta sortzen den kiratsa ere. Erosotasunari dagokionez, argi dago edozein aldaketa deserosoa izan ohi dela. Erosoena bere horretan jarraitzea da, baina horrela ez da arazorik konpontzen. Gainera, sistema



hau ezagutu duten askok, batik bat adinekoek, diote eroso dela, hondakinak etxetik lehen baino gertuago utz baititzakete.

3. *“Inon ez da %80etik gora birziklatzerik lortu”*. Besteei begira egon ordez gure inguruan zer dagoen behatu beharko genuke. Hondakinaren kudeaketa leku bakoitzean desberdina da; horrelako konparazioek ez dute balio. Nahikoa da begiratzea atez-ateko sistema ezarri duten udalek zein birziklapen-tasa duten, ikusteko tasa altu horiek egingarriak direla.

4. *“Bildutako guztia ez da birziklatzen”*. Zalantzarik gabe, birziklatu egin beharko litzateke. Hori da erronka. Gipuzkoan birziklatze-tasak gehitzeko tratamendu-plantak egin behar dira. Eta *zero zabor* helburua posible izan dadin material berrien ikerkuntzan inbertitu beharko litzateke, ahal den heinean birziklatu ezineko materialak baztertze aldera.

5. *“Garestia da”*. Egungo lau edukiontziko sistema baino merkeagoa da, ez baita errausteko plantan dirurik gastatu behar. Bosgarren edukiontzia ezartzea baino merkeagoa ere bada. Ez al da garestia errausteko planta (ia 400 milioi)? Atez-ateko sistema pertsonal gastuak garestitzen du, lanpostuak sortzen direlako. Egungo egoera ekonomikoan errausketara bideratuko litzatekeen dirua enplegua sortzen erabiltzea albiste ona dugu.

6. *“Udal handienetan ezin da atez-atekoa ezarri”*. Zergatik ez? Hiri handietara ere molda daiteke; hainbat adibidek frogatzen du hau Europan zehar. Sistema Donostia baino handiagoak diren hirietan ere ezar daiteke.

7. *“Inposizio bat da”*. Oraingo edukiontzien sistemaz ez digute kontsultarik egin, eta ez dugu inposizio

gisa ikusten. Kontsulta soil-soilik atez-ateko sistemari buruz egin da, eta Usurbilen aukera hori atera zen garaile. Kontsulta toki guztietan egin behar da.

8. *“Errausketak ez du kalterik egiten”*. Errausketak ingurumenari eta pertsonen osasunari kalterik ez diola egiten esaten dutenak gezurretan dabilta. Errauste-plantetan dioxinak eta furanoak sortzen dira, eta hauek minbizia eragiten dute.

9. *“Aurrerantzean ere zabortegiak beharrezko izango dira; errausketarekin ez”*. Atez-ateko bilketak birzikla ezineko %10 horretarako behar du zabortegia, baina hau garbia izango da. Erraustean ere zabortegia beharrezkoa da, baina hau ezkutatu egiten digute. Zergatik? Zabortegi hauek toxikoak direlako eta ez direlako Gipuzkoan egingo. Gure pozoia beste batzuren etxe ondora eramango dute. Hau al da buruaskia izatea?

Atez-ateko beste esperientziak

Atez-ateko bilketa xelebrekeriatzat aurkeztu nahi dute batzuk, eta Gipuzkoako lau udalerritan besterik ez dela ezarri diote. Baina sistema honen garrantzia eta egokitasuna ikusteko adibide ugari dago. Ohikoa da, baita beharrezkoa ere, sistema hau ezartzen den lekuan udalerraren edo hiriaren ezaugarrietara moldatzea; ordutegia eta egutegia kasuan-kasu erabakitzen da, beharizanen arabera. Kasu askotan biltzeko egunak atez-ateko bilketa egiten den Gipuzkoako herrietan baino bakanagoak dira, eta jendea horretara moldatzen da.

Dublinen, esaterako, zaborra astean behin biltzen dute, eta beira herritar bakoitzak eraman behar du birziklatze punturaino.

Hainbat udalerrri katalanetan Gipuzkoako sistema bera erabiltzen da: 80 pasatxo dira, 300.000tik gora biztanlerekin. Hauen artean, 10.000tik gora biztanle dituen hainbat hiri.

Italian ere sistema oso hedatuta dago: 1.800 udal eta 18 milioi biztanle. Erroman milioi bat biztanle du atez-ateko bilketa; Salernon, 140.000k, Cosmariko mankomunitatean, 240.000 biztanle. Beste leku batzuetan ere ezarri da: Monza, Napoliko zenbait auzo...

Belgikan Namurreko 100.000 biztanleek dute zabor organikoa biltzeko sistema selektiboa. Bruselan hondakinak atez-ate biltzen dira. Britainia Handiko Liverpoolen ere, 450.000 biztanle direlarik, atez-ateko bilketa egiten da.

Adibide ugari frogatzen du hiri handietan atez-ateko bilketa posible dela.

Itzaropenerako beste kasu bat Frantziako Niort hiria dugu, 60.000 biztanle dituena. Errausketarekin hastekoak zirela jakin zenean, atez-ateko bilketa ezarri zuten, eta honen emaitzak ikusirik, errauste-plantaren proiektua bertan behera geratu zen. Hemen ere lortuko dugu.

Zergatik tematzen dira errausketarekin?

Gaur arte ez da ezer egin daukagun produkzio eta kontsumo eredu aldatzeko. Eta eredu honekin sortzen diren hondakinen arazoarekin, aukera bakarra errauste zen. Baina atez-ateko sistemak egoera hori irauli eta errausketa zalantzan jartzen du. Hau ona da, baina batzuk oraindik errausketaren aldekoak dira. Izan ere, negozio aukera gisa ikusten dute, eta nahiago dute hau osasuna edo ingurumenari arreta eman baino.

Benetako arazoari ez diote heldu nahi; interes bakarra negozioari eustea da.

Badirudi errauste-plantaren proiektua oso aurreratuta dagoela, eta bertan behera uztea asko kostako dela. Baina ez dute esaten 2011ko udal- eta foru-hauteskundeetan atarian sinatu zela hura eraikitzeko kontratua, eta kontratu honek dio planta ez egitekotan kalteordaina izango zela. Hondakinen partzuergoan egon ziren berberak erabaki zuten hau sinatzea; proiektua geldiarazita eragingo litzatekeen kostua, edozein moduz, euren arduragabekeriaren fruitu izango da; bazekiten zer zettorren.

Leku batzutan errauste-planta bat egiteko erabakia hartuta zegoen, eta proiektua baztertu egin da. Hori gertatu da Nafarroan eta Kataluniako hainbat tokitan. Baina hemen, sistema alternatiboa bat izanagatik eta proiektuak gelditzen ari direla ikusita ere, batzuk errausketaren negozioa ari dira defenditzen, eta horregatik



Herriari beti egin behar zaio kontsulta

Atez-ateko bilketak jendearen parte hartzea eskatzen du; guztion konpromisoa da aurrera egin dezan daukagun berme bakarra. ELAk uste osoa du hala izango dela. Herri bakoitzean sistema nolakoa izango den herritarren parte hartzearekin erabaki behar da. Eta bidezkoa da herri-kontsultak egitea, 2010ean Usurbilen egin zen bezala.

Baina kontsulta hauek ez dira bakarrik atez-ateko bilketari buruz egin behar. Beste sistema batzuk ezartzea erabakitzen dutenek ere (4 edo 5 edukiontzi) galdera egin beharko liokete biztanleriari. Lehenago Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoan egon zirenek kontsultak eskatzen dituzte, baina eurek errausketaren inguruan ez zuten halakorik egin. Gogoan izan behar da errausketaren aurka 65.000 sinadura bilduta ere entzungor egin zutela, eta Lege-Ekimen herritar bati ez ziotela jaramonik egin.

ELA kontsultaren, erreferendumaren alde dago, baina ez soilik hondakinen kudeaketari buruz. Esaterako, gure lurraldea porlanez betetzen ari zaizkigun azpiegituren inguruan ere galdetu beharko litzaieke herritarrei: AHT, Pasaiako kanpo-portua, Lurralde-Plan Partzialak... Edo zerga-sistema zein izango den erabakitze aldera...

ELA, atez-ateko bilketaren alde, eskubide laboralak ahaztu gabe

Hondakinak arazo larria ditugu. Gehiegi sortzen dira, eta gutxiegi berrerabili edo birziklatu. Egungo bilketa sistema aldatu egin behar da, eta zaborra gutxitu, berrerabili eta birziklatzeko helburura iristeko egokiena ezarri. Osasunerako eta ingurumenerako kalte

gutxien dakarrena ere izan beharko luke. Orrialdeotan ikusi dugu atez-ateko bilketa hurbiltzen dela gehien helburu hauetara. Baditu arazoak, baina aukerarik egokiena da, gizarte eta ingurumen ikuspuntutik, eta gainera enpleguak sortzen ditu.

Sinetsarazi nahi digute errausketarekin zaborra desagertu egiten dela. Baina guztiz kontrakoa gertatzen da. Pentsamolde horrek eragiten du gauzak ez aldatzea, gutxitzeko eta berrerabiltzeko bidean aurrera ezin eginik geratzea. Gainera, gezurra da, erraustuz airera eta lurzorura doazen isuri kaltegarriak sortzen baitira, baita hondakin toxiko arriskutsuak ere.

Bide batez, salatu egin behar ditugu gai honietekin politikoa atera nahi diotenak, lurraldeen arteko liskarra pizteraino. Esaldi bitxiak entzun dira: "Bizkaian Gipuzkoako zaborra jatea nahi dute". Gure ustez, aitzitik, gai honetan argudio zorrotzak eman behar dira.

ELA atez-ateko sistemaren alde dago, baina ez edozein preziotan

Sindikatuarentzat ezinbestekoa da gaur zabor-bilketan diharduten pertsonen lan-eskubideak aintzat hartzea, eta lanpostuak mantentzea. Guk sistema berria babestuko dugu, baldin eta subrogazioa badago. Aldarrikapen laboral hau edozein indar progresistak bere egin beharko luke. Atez-ateko bilketa defenditzen dugu, baina eskubide laboralak, gardentasuna eta kontrol ekonomiko zein politikoa bermatzen direlarik.